

IDEIA

Gure enpresaren helburua taxi sare bat sortzea da. Hasiera batean **Donostian, Gipuzkoan**, baino hurrengo bi urtetan ere beste hiri batzutara hedatuko genuke (Bilbo eta Gazteiz).

Gure taxi enpresa beste batzuekin konparatuta oso berritzailea izango da: Eskaintzen dugun zerbitzua desberdina delako eta orain arte ez delako Europan ikusi.

Gure taxiak gidaririk gabekoak izango dira. Auto autonomo eta elektrikoa. Horretarako beste enpresa batekin lana egingo dugu. Auto autonomoen enpresa bat. **Guri gustatuko litzaiguke Teslarekin lana egitea.** Beraiek oso produktu aurrerratuak ekoizten dituztelako baino beste hainbat aukera ere baditugu. Adibidez; Waymo, Cruise , Nvidia edo Motional beste enpresa batzuen artean.



Hasiera batean **sektore publikoaren baimena beharko dugunez** lehenengo urteko garapena horrelakoa izango dela aurrekusten dugu:

Teslak Estatu Batuetan (Austin eta San Francisccon) egin duen antzera, segurtasuna bermatzeko, **kopilotuaren lekuan gure langile bat egongo litzateke**, kontrola hartu beharko balu. Horrela, lehenengo hiru hilabetetan kotxe batekin hasiko ginateke. Eta beste bederatzi hilabetetan beste lau auto erabiliko ditugu Donostian, guztira bost auto.

Hurrengo urteetan Bilbo eta Gazteizen negozioa eskalatuko dugu taxi autonomo gehiagorekin. Ahalik eta azkarren espero dugu erabateko kotxe autonomo baimena lortzea, hau da, gidaririk gabekoa.

Bezeroak

Gure bezeroak ondorengo hauek izango direla pentsatzen dugu:

Alde batetik **Sektore publikoa** izango da, zerbitzu publiko bat eskeintzen dugulako eta beraien baimena beharrengatik.

Bestalde, **publizitate enpresak** izango lirateke. Hau da, kotxe barruko pantailatan eta app-ren bitartez agertuko direnak.

Azkenik, **gure bezero** garrantzitsuenak pertsona erabiltzaileak izango dira. Legalki 16 urtetik gorakoak hartzen dutenez taxia, hortik abiatuko gara.

Bezeroen artean lehentasuna izango dutenak helduak eta mugikortasun arazoak dituzten jendea izango litzake.

Enpresa bezala gure helburua ibilgailu bat errez eta eskuragarri lortzea izango da, jende guztiarentzat.

Ikus ezazu hemen gure aplikazioaren prototipoa:

Erabiltzailea autoan sartzean musika, bideoak, etb... pertsonalizatu ditzake



Bestalde, autoa beste hainbat erabiltzailekin partekatzeko erabakia hartu ahalko duzu. Hori adostuz gero, zure bidaia merkeagoa aterako litzazuke.



Gure aplikazioaren bitartez gidaririk gabeko taxi elektriko eta autonomo bat lortu ahalko duzu. Zure zerbitzuan egongo dena. Hasiera batean bakarrik Donosti, Gipuzkoan.

App-an sartu eta bapatean zure ubikazioa jarrita kotxea agertuko zaizu. Eta gainera kotxea nondik doan ere segitu ahalko duzu.

App-aren bitartez kotxea itxaroten hari zaren bitartean, kotxea zure gustura jarri ahalko duzu.

Adibidez:

- Temperatura
- Musika
- Barruko argia
- Etabar